

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2024KO
AZAROAREN 29A
bidaso.hitza.eus
oarsoalde.hitza.eus
935. ZENBAKIA



Hemen
euskaraz
BIZI GARA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Euskaraz bizitzeko aukera bila

Euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortzeko lanean ari dira erakundeak eta eragileak. Hizkuntza erabiltzen ez bada, ordea, dena da zailago • 3-25

2025eko udaberrian iritsiko da laugarren Euskaraldia • 12-13

Euskararen alde, txikitik eragiten Larreaundi eta Olaberria auzoetan • 22-23

igandean **HISTORIAZ JANTZI!**

Hilabetero, azkeneko
igandean, Historiaz
Jantzi zaitez!
HITZAkideentzako
bisita gidatu
bereziak doan!

Abenduaren 15ean:

Jantziaren Zentroa

**12:00etan. 25 lagunentzako tokia.
Erreserbatu zurea!**

Izen emateko:

sustapenaobh@hitza.eus



688 77 07 52



Izen emateko azken
eguna: abenduak 13

labur.eus/historiazjantzi

Oiartzualdeko Hedabideak S.L.ko
kideak:

Oiartzun Irratia
Orratz! Kultur Elkartea
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara
eta Oarsoaldeko beste
53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten
erakundeak.

Udalak: Errenteria, Lezo, Oiartzun,
Pasaia.



Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.

Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35
harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidaso.hitza.eus



Zirimiria

URKO ETXEBESTE PETRIRENA



Azkenaldian maiz entzun eta irakurri ditut zirimiriarekin harremana duten esaldiak.

Eguraldiarekin edo meteorologiarekin harremana ez duten zentzuarekin, gainera. Omen, ideia bat, tesi bat, edo dena delakoa ezin denean era zuzenean eta tupustean zabaldu, zirimiriak berezko duen pertseberantziarekin eta patxadarekin jardun daiteke horien lanketarekin. Erauntsiak sortu beharrean, mara-mara zabaldu behar dira nahi diren horiek. Inor deseroso edo gaingiduta senti ez dadin, behar bada zeharkako bideak hautatzean datza gauzen nolakotasuna besteen artean barneratzeko teknika horrek. Apalean, baina gelditu gabe. Bustitzen dela konturatu gabe.

Euskararen gaian zalantzak ditut. Erauntsia, ala zirimiria? Edo biak tarteka? Agian, bietako bat ere ez? Esan nahi dut, eta betiere erabilerrari lotuta: euskaraz dakien jendeari mezu apokaliptiko eta barrenak mugiarazten dituzten horietakoak bidali behar zaizkio hizkuntza erabil dezan, lepotik hartu eta «euskaraz hitz egin demontre!» trazakoak? Edo ura erretetan antzera, lasai-lasai doakiola

euskal komunitateari mezua trankil ibil dadila, ondo ari garela, pazientzia kontua besterik ez dela euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortzea.

Euskaraz bizitzea. Esaldi biribila. Gurean, oraindik ere, ia ezinezkoa. Datuek esaten dute inoizko euskaldun kopururik handiena dela gurean, Euskal Herrian, eta Oarsoaldeko nahiz Bidasoko herrietan. Erabileran dago kezka, askok jakin arren, behar bezain bestek ez dutelako erabiltzen hizkuntza. Euskaraz bizitzetik hurbilago izateko erakundeak, udalek bertako kasuan, araudiak, planak, irizpideak eta bestelakoak dituzte; horien kontrako oldarraldia abian da, ordea, epaitegietatik. Euskaraz bizitzearen kontrako erabakien zirimiriaren zati bat baino besterik ez da hori. Epaileen erabaki horien kontra tokian tokiko erantzunak ematen bai, baina oldarraldiari euskaldunek hizkuntza etenik gabe ahoan izanda ere erantzungo baliote? Hau da, zirimiriaren kontzeptua pankartetatik harago, egunerokoan aplikatuko balute euskara dakitenek, euskaraz bizi ahal izateko tantaz tantako bizimodua ezarrita?

Erakundeak, euskaltegiak, ikastetxeak, euskara elkarteak, hedabideak, askotariko eragileak, norbanako asko eta asko... Askok gara. Euskararen normalizazioak eskatzen dituen egiturak baditugu, horietan bihotz asko ari dira lanean eta jardunean. Aintzat hartu behar da horiek guztiak euskararen alde egiten ari diren zirimiri lana. Baina hizkuntzak bihotzetik ahora egiten ez badu, gurea ez den zirimiriak harrapatuko gaitu, ohartu gabe ere beste interes batzuen euri txikiak blaituko gaitu. Zirimiriak sortzen dezente onak bagara ere, badi-relako bestelako tantak egunero barreiatzen dituztenak, eta agian jakin gabe, gu geu beste zirimiri batzuen eraginpean izan gintezke. ■

Bandera asko ditu euskarak

Euskaltegietan askotariko jatorridun ikasleak daude. Euskara indartzeko ezinbestekoa da haien ere hizkuntzara hurbiltzea. Lezoko Oroitzene AEK, horren adibide.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Inguruko herrietako biztanleen pluraltasuna, kultura ezberdinen arteko elkarbizitza, eta askotariko jatorria duten pertsonen arteko harremanak handitzen eta indartzen ari dira. Horretatik ezin da salbu gelditu euskara. Euskal Herritik kanpo jaio eta bertara bizitzera etorri direnak ukaezinezko ekarpena egiten ari dira bertako herri eta auzoetan. Haietako askok urratsa egin, eta beharrezko ikusi dute euskara ikastea; ez soilik lanposturen bat edo besterik gabe bertako hizkuntza ezagutzeko. Integraziorako baliabide garrantzitsua ere bada euskara. Euskaltegietan da etorri berri direnen olatua. Euskaratik hemengo ohituretara, nahiz izateko eta egiteko erataria hurbiltzen ari dira.

Horren adibide da Lezoko Oroitzene AEK euskaltegia. Goizeko nahiz arratsaldeko taldeetan dituzte duela ez asko Euskal Herrira bizitzera eto-

rritakoak. Talde horietako batekin izan da HITZA. Zehazki, o urratseko goizeko taldearekin, hasiberriekin. Astelehenetik ostegunera izaten dira euskaltegian Edurne Lizarazu irakaslearen gidaritzapean euskararen urratsak egiten. Zazpi kidek osatzen dute taldea. Ashley Martinez, Estefania Diaz, Hanna Ponochevna, Dayana Rios, Sandra Gilazaña, Jane Delgado eta Anabel Horcajuelo dira.

Giro polita dute gelan. «Interes handiarekin etortzen dira euskaltegia. Jakin-mina dute. Oso pozik nago taldearekin», ziurtatu du Lizarazuk. Irakasleak aipatu du ia ez dutela hutsik egiten, kalerik ez klaseetan. «Baten batean seme-alaben zaintzagatik ezin izan dute etorri. Baina asistentzia oso ona da, ia-ia beti etortzen dira», azaldu du. Hedabidea ikasgelan izan den bitartean erraz suma zitekeen aldarte ona, ikasteko gogoia, bertako hizkuntzan

sakontzeko nahia. Kuadrilla ere osatu dute. Euskarak ez duelako bandera bakarra. Nahi duen ororena da hizkuntza. Bizirik iraun nahi badu, denen ahotatik atera behar baita euskarazko jarria.

Euskararekin gustura

Argentinan jaio zen Estefania Diaz, eta lau urte dira Lezora etorri zela. Aipatu du euskaltegian izena emateko arrazoirik nagusia euskara lanerako beharrezko duela da, baina senide euskaldunak izatea motibazioa izan dela aitortu du. Bi seme-alaba ditu: «Ikastolara doaz. Hortaz, euskara ikasten laguntzen didatela esaten dut. Egunero etxera hitz berriekin datoz, eta nik hemen ikasten dudana ere irakasten diet». Gelako giroa «ezin hobea» dela azaldu du, Lizarazu irakasleari gorazarre egiteaz gain, klasekideekin egin duen harremana «oso ona» dela adierazi du, pozik. «Gainera, euskaltegian izanda eta euskarari esker, Lezo hobeto ezagutzeko eta lagun berriak egiteko aukera izaten ari naiz». Kuadrilla egin dute Oroitzeneko gela konpartitzen duten zazpi emakumeek, bertatik kanpo ere gelditzen direla azaldu du Diazek, «kaferen bat hartzeko eta gure gauzei buruz hitz egiteko».

«Ni Jane Delgado naiz». Bere burua euskaraz aurkeztu du ikasleak, sendo. Perun jaio zen, eta duela hiru hilabetez Pasai Donibanen bizi da. Izan ere, Oroitzene Lezon bizi diren ikasleak izateaz gain, Donibanekoak eta beste hainbat herritakoak dituzte, hurbiltasunagatik edo ordutegiengatik Lezoko euskaltegiara doazenak. «Gustuko dut euskara. Oro har, hizkuntzak gustuko ditut. Eta nola ez, hemen bizitzen izanda, nola bada ez dut euskara ikasi behar?». Alaba ikastolan du, eta hango hizkuntza, beraz, egunerokoa pisu handia duen hizkuntza euskara denez, normaltzat eman du Delgadok hizkuntza ikasteari ekitea: «Alaba laguntzeko ere ikasten ari naiz euskara. Ez dezala entzun edo hitz egin ikastolan bakarrik. Uste dut etxeko giroan ere hizkuntzarekin harremana izatea oso beharrezkoa dela». Delgadok azaldu du lan mundurako ere oso baliagarri izango zaiola hizkuntza ikastea. «Gainera,

Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

LEZO INSTITUTUA

HAZI, HEZI
ETA BIZI EUSKARAZ

Lezo Herri Eskola

Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus

Astelehenetik ostegunera, goizez, jasotzen dituzte eskolak Edurne Lizarazu irakasle duten taldekoek.

Urko Etxebeste

oso harreman ona dugu gure artean. Kafe eta bazkari artean, praktikatzeko aukera ere baliatzen dugu! Zaila dela? Tira, gogoia baduzu eta ilusioa baduzu, edozer ikas daiteke, baita euskara ere!».

Dayana Riosek urtebete daruma Lezoz bizitzen. Nikaraguan jaio zen. Aipatu du hizkuntzak gustuko dituela, eta hango eta hemengo hizkeren jabe izatea aberasgarria dela. «Hemen bizita, normalena euskara ikastea dela uste dut gainera. Hizkuntzak kulturen adierazgarri nabarmenetakoak dira. Beraz, euskararekin bertako kultura eta ohituretara hurbiltzeko aukera izaten ari naiz». Euskaraz jakitea lanerako baliagarri ere izango zaiola adierazi du, baita lagunak egiteko nahiz herriko harremanak sendotzeko ere. «Lagunen arteko giroa dugu gelan. Horrela



errazagoa da dena. Oso gustura etortzen naiz euskaltegira», nabarmendu du. Euskal Herrira etorri berri direnei urratsa egin dezatela eskatu die: «Has daitezela euskara ikasten. Ez dira damutuko. Pixkanaka-pixkanaka bada ere, ikasiko dute. Gogo eta nahi kontua da. Aski da nahi izatea aurrera egiteko».

Testigantza eman ondoren, zu-

zen-zuzen jarri dira zazpi ikasleak gelaren erdian argazkia ateratzeko. Beti irribarrearekin. Askotariko jatorrikoak dira denak, bandera asko ordezkutzen dituzte. Baina egun komunean dutena da bertan bizi direla, eta euskarak batu dituela. Ulertu dute hemen bizita bertako hizkuntzara ere jauzia egin behar dutela. ■

HERRIKO IKASTETXE PUBLIKO INTEGRALA

2-16 URTE

Karmengo Ama |PI

Hartu hitza, eman hitza eta euskaraz mintza

Ulia Etorbidea z/g
20110 Trintxerpe - Pasaia
Tlf: 943 899 248 - 688 629 924
zuzendaritza@ipikarmengoama.eus
www.ipikarmengoama.eus



Telletxea, Calma eta Briceño, Pasaiaiko Udal Euskaltegiko klase batean. I.S.

Euskara besarkatzeko lehen urrats sendoak

**Euskal Herrira
bizitzera etorri
direnak besoak
zabalik jasotzen
dituzte Pasaiaiko
Udal Euskaltegian.
Miren
Telletxearen
klasean izan da
HITZA.**

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

PASAI

Ia egunero, eta «txintxo-txintxo», haien hitzetan, Pasaiaiko Udal Euskaltegira joaten dira Isabela Briceño eta Arnulfo Calma. Goz eta oso adi jasotzen dituzte Miren Telletxearen irakaspenak. Venezuelatik etorritakoak dira biak, eta gurera heldu zirenetik, haien zenbait klasekide bezalaxe, euskararen munduan murgiltzeko apustua egiten ari dira.

Kontziente dira klaseek denbora kentzen dietela, esfortzu handia dela zeharo ezberdina den hizkuntza bat zerotik ikasten hastea, baina biek argi dute: «Bukaerara arte» ariko dela dio Briceñok, hizkuntza menderatu arte. Ama izango da aurki, eta etorkizu-

nean haren alaba izango den Izarogatik murgildu da euskararen munduan: «Nire alabak euskara ikastea nahi dut, euskaraz ikastea nahi dut, eta nik ere harekin hala egin nahi dut. Horregatik hasi naiz ni neu ere, integratzeko. Nire alabaren irakaslearekin hitz egitera joan eta ulertu nahiko nuke, edo guraso bileretan esango direnen jabe izan». Lana bilakatzeko ere euskarak «ate gehiago» zabaltzen dizkiola aitortu du.

Calma orain dela urtebete heldu zen San Pedrorra, hark dioen bezala, «mareak ekarri» zuen Pasaiaira. «Abokatua naiz eta orain Blas de Lezo Itsas Eskolako ikaslea naiz. Heldu eta berehala txundituta geratu nintzen, paisiarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin... Maitasunez jaso naute, eta hainbeste maitasun eman didan herri horren hizkuntza aitortzeko eta integratzeko hartu dut euskara ikasteko erabakia. Hasieratik klasean, lanean eta kalean euskara asko entzuten nuen, eta argi dut nire etorkizunak euskarari eta itsasoari lotuta egon behar duela».

Bi hilabete daramate euskaltegian, eta irakaslea haien jarrera eta prestutasunarekin, eta noski, bilakaerarekin,

harro dago, oso. «Etorri berriak dira. Ikusi dute hemen hizkuntza bat daukagula eta ikasten hasi dira. Eta konturatzaren dira euskara ez dela hain erraza, oso aberatsa delako. Ahalegin eta esfortzu handia egiten dute. Balore handia dauka horrek guretzako. Haien aisia honetan inbertitzen dute, ia egunero bi ordu hartzen dituzte euskaltegira etortzeko. Oso eskertzekoa eta polita da hori», aitortu du, hunkituta. «Aurrera egiten dutela eta ni horren parte sentitzea ikaragarria da», erantsi du.

Briceño eta Calmarekin batera Euskal Herri kanpotik etorritako zenbait ikasle ere aritzen dira, baina gehienak bertan jaiotakoak direla azaldu du Telletxeak: «Hau ez da espresuki kanpotik datorren jendearentzat, denetik dago. Hemengo adineko emakumeak ditugu, adibidez, bizitza oso bat eman dutenak hemen eta egin beharreko zerbait daukatena: euskara ikastea. Talde handi bat gara, anitza, behar oso ezberdinekin. Hemengoek ez zaie arrotza egiten hizkuntza, hitz asko dakizkite

eta zerbait menderatzen dute. Baina kanpotik etorritakoentzat erronka oso handia da, ezer jakin gabe iristen direlako». Haien esfortzua txalotu du irakasleak.

Zailtasunak zailtasun, tinko

Euskara hizkuntza konplikatu dela berretsi ahal izan dute biek, baina ez dira damutu egindako apustuaz. Zer egin zaien gogorren galderari berehala erantzun dio Briceñok. «Esaldien hurrenkerak, deklinabidea eta tx-ak», esan du, barrez. Calmak ere bide beretik jo du, baina ez zaiola hain arrotza egin esan du. «Nahiz eta konplexua izan, aukera bat eman nahi izan diot. Mantsomantso, baina aurrera ari gara».

Bi hilabete eskas badaramatzate ere, lehen fruituak jasotzen hasi dira. «Euskaraz amesten hasi naiz!», aitortu du Briceñok, irribarre handi batekin. Calmak ere «lotsarik gabe» euskaraz aritzen dela dio: «Sekulakoak botatzen dizkiet nire irakasleei euskaraz, lotsarik gabe botatzen ditut, eta ulertzen dida-

te». Telletxeak harro dio haiek direla «hemengoak xaxatzen» dituztenak: «Asko probokatzen dute. Eta haiek ahalegin hori egiten badute, hemengoek dugu giltza».

Zailtasunetatik harago, zer egin zaien berezien galderari berehala erantzun diote biek: euskalkiak. Calma: «Hainbeste euskalki izateak txunditu gaitu. Beste hizkuntzek dialekto ezberdinak izan ditzakete, baina normalean herrialdeetan banatuta daude. Hemen, ordea, toki oso txiki batean, asko daude. Paper dendan bizkaiera entzun dezaket, eta klasean irakasleak Arabako euskalkiaz egiten du. Ikaragarria da hori».

Kanpotik etorriei ilusioa mantentzea «funtsezkoa» dela dio Telletxeak: «Oso zaila da egunero klasera etortzera, hizkuntza zail bat ikastera. Desesperatu gabe ilusio hori mantendu behar dute. Horregatik dosifikatzen goaz. Belarriz asko ikasten ari dira, eta eguneroko kontaktua beharrezkoa da fintzeko. Zorionez, oso prest daude etortzeko. ■





Azoka indarberritu dute

HONDARRIBIA. Azken urteetako gain-beherari aurre egin, eta Hondarribiko Euskal Liburu eta Disko Azoka biziberritu dute Hondarribiko Udalak eta Blagan Euskara Elkartek, herriko Euskararen Mahaiaren laguntzarekin. Abenduaren 12tik 15era jarriko dute azoka Arrantzale auzoan, eta goizez nahiz arratsalde izango da zabalik. Zazpi argitaletzek postuak izango dituzte, eta gainera, sari banaketak, liburu aurkezpenak, antzerki saioak edo musika emanaldiak ere izango dira. Abenduaren 6ko HITZAren atsekarian informazio gehiago.

71.032

EUSKALDUN. Eustat Euskal Estadistika Erakundeak dituen datu berrien arabera, Oarsoaldean nahiz Irun eta Hondarribian 71.032 euskaldun daude. Horiek dira euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenak. Batez bestekorik handiena Oiartzunek du, hango biztanleria osoaren %76,16k dakielako euskaraz. Ondoren Hondarribia (%64,5) eta Lezo (%60,8) doaz zerrendan. Euskaldunen kopurua %50etik beherakoa da Pasaian (%44,07), Errenteria-Oreretan (%43,5) eta Irunen (%40,9). Irunek ezagutzaren batez bestekoaren azken postua izan arren, euskaldunen kopurua sei herritatik handiena du, 24.449 pertsonak dakitelako euskaraz (Oreretako eta Pasaiaiko euskaldunen baturaren adina).



Mintzagun saria, 'Oinez' lanarentzat

PASAI. Ikuska Pasaiaiko Badiako Film Laburren Nazioarteko Erakustaldiaren barruan, euskarazko lan onena saritzen dute, Mintzagun saria ematen diote. Aurten, Oarsoaldeko sei euskaltegietako ikasleek hala erabakita Leire Egaña oñatiarraren Oinez film laburrak lortu du. Hala, 600 euroko saria jaso zuen Egañak larunbatean Trintxerpeko alkateordetzan egindako sari emate ekitaldian. Euskaraz lan egiten segitzeko baliatuko du saria. Ikuskaren gaineko informazio osoagoa izateko joan oarsoaldea.hitza.eus webgunera.



Ekin.

Gipuzkoa oparagoa izateko.


Zaindu.

Pertsona gaztiak eta horien ingurukoak zainduen dituenak.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitzen.






NIK PARETARIK EZ DET IKUSTEN, BAINA



BATZUEI EZ ZAIE PASATZEN UZTEN



OLDARRALDIAREN AURREAN OLDARTU

Hizkuntza irizpideen kontrako epaien aurka erantzun irmoa ematen ari dira herritarrak. Irunen ere hala izaten ari da. Eta jarraituko dute. Izan ere, 23. Korrika hirian abiatu izanak euskararen aldeko eragileak batu ditu, eta hizkuntzari hauspoa emateko ados izanda, erantzun dinamiketan ere bat egin dute.

Euskararen kontrako erasoeri aurre egiteko beste behin bilduko dira abenduaren 3an, San Juan plazan, 19:00etan.

ALAINE ARANBURU

ETXEGOIEN

IRUN





**OLDARRALDIAREN
AURREAN
EUSKARAREKIN BAT
EUSKARAZ BAT**



I.S.

EGOITZ ALBIZU EUSKARALDIAREN PASAIAKO DINAMIZATZAILEA

Egunotan egitekoa zen Euskaraldiaren laugarren edizioa atzeratzea erabaki dute, udaberriarekin batera helduko da euskararen aldeko ariketa erraldoia. Berritasunak izango direla aurreratatu du Albizuk.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

PASAIA

« Ilusio hori
berreskuratzeko
gogoz gaude »



laugarren Euskaraldirako *reset* egitea erabaki dute, hasierako ilusioa berreskuratu eta ariketa bat izatetik mugimendura egin dezan salto egitasmoak. Azaroan beharrean, datorren maiatzean abiatuko dute dinamika.

Laugarren Euskaraldia atzerapenarekin dator. Hori da berritasun nagusia, baina ez bakarra.

Hainbat faktore elkartu dira. Alde batetik, pandemiak eragin zuen momentu honetan euskararen aktibazioan dauden egitasmo handienak urte berean kointziditzea. Korrika atzeratu behar izan zelako, urte berean kointziditu zuten Korrikak eta Euskaraldiak. Hori batetik. Bestetik, Euskaraldiak bazeraman denbora bat gogoeta egiteko beharrek. Dinamikari buelta bat eman, lehenengo edizioako ilusioak berreskuratzeko asmoz, eta berritasun batzuen beharra ikusten zen. Orduan, berritasunetako bat data aldaketa izan da, eta, beraz, udazkenetik udaberriara pasatzen denez, urte batean Korrika izango da, eta hurrengoan Euskaraldia. Udaberria sozializatzeko garai egokiago izan daiteke agian, parte hartzeko garai hobea. Azkenean ariketa sozial bat da, baina aritzeko eta elkarrekin egoteko, kalean ikusarazteko aukera hobek eskaintzen ditu garai horrek. Txapak gehiago ikusteko, giro gehiago egoten da kalean.

Aurten reset moduko bat egitea erabaki duzue, beraz.

Hori da. Euskaraldiak urterik urte, edizioz edizio, ekarpen berriak eta berritasun batzuk izan ditu. Hirugarren ediziotik laugarren ediziora egindako gogoeta honetan, egiteko moduetan buelta bat emateko beharra ikusi dugu. Jendearekin gehiago egon nahi dugu, aurrez aurre, eta pixka bat euskararen aktibazioan parte den jendea edo parte izan dena, eta agian oraindik parte izan ez dena, saretzeko lanean gaude. Bestetik, Euskaraldia definizioz mugatu da, edo horrela ulertu da, egun zehatz batzuetan egiten den ariketa kolektibo masibo sozial batera. Horren atzean egon den ikerketa soziolinguistikoak ere agerian utzi du eraginkorra badela, nahiz eta gorakada hori egun batzue-

tan askoz ere handiagoa izan. Baina salto hori egiteko beharra bazegoela ikusi da, *reset*-a zentzu horretan da, nola berrabiarazi egitasmoa jatorrizko helburuetara iristeko.

Berritasunak badira ere, oinarria edo esentzia mantenduko du inizatibak.

Hala da. Bere horretan funtzionatzen duten eta eraginkorrak diren hainbat ezaugarri ez dira bertan behera geldituko. *Ahobizi* eta *belarriprest* rolak mantenduko dira. Horretan jarraituko dugu, pedagogia egiten, azaltzen zer esan nahi duten bi rolek. Baina bereziki giro bat sortu nahi dugu, euskaraz bizi ahal izateko espazioak eta momentuak sortzeko. Egitasmoa zabaltzen ari gara, ulertzen dugulako elkarrekin eta modu kolektiboan egindako urratsak askoz ere eraginkorragoak direla. Gogoz gaudu, ilusio hori berreskuratu eta lau hazietara kutsatzeko.

«Euskaraldia gaingituko duen Euskaraldi bat» nahi duzuela aipatu zenuten aurkezpenean.

Euskaraldia ikusteko, bizitzeko eta

ulertzeko modu berri bat sustatu eta proposatu nahi dugu. 11 egunetik harago doan jarrera bat ezartzea gustatuko litzaigukeelako, eta bakoitzak bere egunerokoan finkatzea. Orokorrean euskaraz bizi nahi duen jendearentzat erreferentziatzeko momentu bat da Euskaraldia, eta aldi berean, momentu hori denboran zabaldu nahi dugu.

Ariketa bat izatetik, mugimendu bat izatera, alegia.

Hori da. Ikusten dugu jendea badagoela antolatuta, badauka euskaraz bizitzeko nahi eta behar hori, eta hori saretzea da gure asmoa. Nola egiten dugun biderkatzailea izango den harreman sare bat, horretan gaude, harreman kate bat sortzen, aurrez aurrekoa, denok elkarrekin zer egin dezakegun hitz egiteko.

320.000 lagunek eraman dute orain arte ahobizi edo belarriprest-en txapa.

Bide onean doa egitasmoa.

Esango nuke hasiera batean finkatutako helburuak betetzen ari garela. Bi helburu osagarri daude. Batetik, parte hartzea zabaltzea eta horretan ari gara,

saretze horren barruan nola iritsi jende berriarengana, eta nola berraktibatu orain arte parte hartu dutenak. Baina era berean, ariketa kualitatibo bat ere egin nahi dugu, ez delako bakarrik zenbakien kontu bat. Mugimendu hori denboran zehar zabaldu nahi den egitasmoa edo jarrera izatea nahi baldin badugu, bakoitzak beste inor epaitu edo beste inoren izenean zer erabaki gabe aritu behar dugu. Bakoitzak bere buruari jartzen dizkion erronkak ahalik eta modurik erosoenean betetzeko aukera izan behar du.

Zergatik animatuko zenituzke pasaitarrak txapak eskuratzeraz?

Euskaraldia delako momentu honetan euskararen aktibaziorako daukagun tresna garrantzitsuenetako bat. Euskaraz bizitzeko gogoia, taldean hori erakusteko aukera eta elkar kutsatzeko nahia elkartzen dituelako. Ez da euskararen aldeko dinamika huts bat, baizik eta euskaraz bizi ahal izateko jarrera eta egitasmo pertsonal eta kolektiboak sortzeko espazio bat da. ■



Euskaraz hitz egiteko gakoa, hitz egitea

Mintzalaguna egitasmoak sustrai sendoak ditu Hondarrribian. Ikasturte honetan 80-85 pertsona ari dira parte hartzen. Horietako bat da Miranda Ebroko Gustavo Melgosa.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

HONDARRIBIA

Donostiako Bagera elkar-
tearen ekimenez sortu zen
Mintzalaguna egitasmoa
1993an. Jendeak euskara
erabiltzeko guneak behar zituela de-
tektatu eta taldetxo batzuk sortzea
pentsatu zuten; izan ere, euskara
ikasten ari diren askok ez dute euskal
girorik izaten inguruan, euskara erabil-
tzeko guneak falta zaizkie. Talde horiek
arrakasta izan, eta Euskal Herri osora
zabaldu ziren. Egun 8.000 pertsona
inguru daude egitasmoaren barruan.

2011-2012an heldu zen Mintzalaguna
Hondarrribira, eta urtetik urtera partai-
de kopuruak gora egin du. Aurten 15
talde daude, eta 80-85 bat pertsonak
parte hartzen dute. Taldeak orokorrean
lauzpabost pertsonakoak izaten dira.
«Era horretan denen parte hartzea sus-
tatzea, konfiantzazko guneak sortzea,
eta jendea lasai eta eroso sentitzea
ahalbidetzea errazagoa izaten delako»,
hala azaldu du Mertxe Gerriko Honda-
rribiko koordinatzaileak.

Taldeak astean behin elkartzen
dira gutxienez, ordua eta lekua haiek
ezartzen dute. Gehienak tabernetan
edo kafetegietan elkartzen dira, baina
bada ibilaldi bat eginez elkartzen den
talderik ere. Talde bakoitza bidelari-
ek —euskara ikasten ari direnek— eta bi-
delagun batek —euskara menperatzen
duenak— osatzen dute.

Gustavo Melgosa Miranda Ebrokoa
(Burgos, Espainia) da, eta duela zazpi
hilabete heldu zen Txingudiko badiara,
14 urte atzerrian igaro ondoren. Hiz-
kuntzak oso gustuko ditu, eta euskara
bereziki betidanik maite izan duela
aitortu duen arren, ez du orain arte
ikasteko aukerarik izan. Zekien apurra
hobetzeko asmotan, irailean Hendaia-
ko AEK euskaltegian izena eman zuen,
eta egun, bi mintzapraktika saiotan
parte hartzen du astero, bidelari gisa:
bata, Hendaian, eta bestea, Hondarri-
bian. «Nire arazoa beti izango da etxera
itxultzen naizenean, emaztearekin eta
alabekin, gaztelaniaz edo ingelesez egi-



Kasino Zaharrear egin zuten mintzalagun saio bat. Bidelagun gisa aritzen direnak boluntarioak izaten dira.

Mintzalaguna

ten dudala». Mintzapraktikak, beraz,
ezinbestekoak dira harentzat, ikasita-
koa praktikan jartzeko aukera ematen
diolako.

Euskaraz ondo hitz egitea du hel-
buru, baita jendea ezagutzea ere, eta
horretarako hizkuntza ahal duen guz-
tietan erabiltzen saiatzen da. Orain ar-
tean aurkitu duen zailtasun handiena,
eta orokorrean euskara ikasten duten
pertsonek erronka, praktika horietatik
kanpo euskarari eustea izaten dela dio
Melgosak: «Komertziala naiz, eta pro-
dutu baten azalpena emateko lehen
saiakera euskaraz egiten dudan arren,
laster gaztelaniara aldatzen naiz, bada-
kidalako aurrekoak gaztelaniaz dakie-
la». Baina horretan dabil.

Mintzapraktikak

Elkarrizketak oso modu naturalean
sortzen direla kontatu du Gerriko, nahiz
eta maiz ezezagunen artekoak

www.iparbus.com
943 491 801 • 606 305 143 Euskaraz da zure bidelaguna!



izan. «Hasieran beren burua aurkezten da: nor zaren, zer egiten duzun, zein afizio dituzun... Eta horrek berak ekartzten du elkarrizketa». Konbertsaziorik ez dute inoiz falta izan, hala berretsi du Melgosak. «Gu Mendeluko ostatu batean elkartzen gara, eta egun horretan egindakoaz edo asteburuan egindakoaz hitz egiten dugu». Elkarrizketaren bidez dakiten hori atera, eta «jariotasuna» nahiz hitz egiteko «segurtasuna» hartzen dute partaideek, eta horrek, aldi berean, egunerokoan pauso txikiak emateko aukera errazten die: «Okindegira joan naiz eta euskaraz eskatzera ausartu direla, edo bizilagunarekin euskaraz hitz egiten hasi direla esaten digute harro», kontatu du Gerrikok.

Melgosaren lehen mintzapraktikaz galdetuta, izan zituen lehen inpresioak ekarri ditu gogora. «Hendaian hasi nintzen, eta esan zidaten lehenengo gauza honakoa izan zen: Jexux Arzallus ezagutzen duzu? Bertsolariaren aita? Eta pentsatu nuen: non sartu naiz?», esan du, barrez. Euskalki ezberdinak lantzeko aukera du bere taldean: erre-zildar bat, hendaia bat eta azparrendar bat elkartzen direlako. Batzuetan kost

egiten zaion arren, oso gustura joaten da hitzordura.

Prozesu motela izan daiteke, baina urte urte partaideen euskara maila hobetzen ikusi du Gerrikok. «Badabil gurekin adineko emakume bat, 81-82 inguru izango ditu. Bere nahia zen bilobekin euskaraz egin ahal izatea. Poliki-poliki hasi zen, oso mugatuta baitzegoen. Txikitan euskara jaso zuen, baina gero urteak pasa zituen batere erabili gabe. Haren ahizpa, ordea, euskaltegira joaten da, baina ez du mintzapraktikarik egiten. Gaur egun jario hobea du lehenak bigarrenak baino. Dakien hori ateratzen du eta hobekuntza nabaritzen da».

Asteroko lanaren garrantzia

Abenduaren 3an da Euskararen Eguna, eta hura ospatzea garrantzitsua dela uste duen arren, urte osoko lanetaren garrantzia nabarmendu du koordinatzaileak. «Euskararen Eguna bezalakoak garrantzitsuak dira esateko hemen dagoela hizkuntza, hemen gaudela. Baina uste dut asteroko lan horrek askoz ere balio handiagoa dela noizean behin festa egiteak baino. Festa egitea ondo dago; gu hor izango gara. Baina ez da *sprint* bat. Jarraipen bat eman behar zaio».

Horregatik, Mintzalaguna egitas-

moaren barruan asteroko topaketez gain, hilabetero aparteko jardueraren bat antolatzen dute. Aurreko hilean mendi irteera bat egin zuten eta hil honetan, —gaur da, 11:00etatik 13:00etara, Itsas Etxean— Mintzodromoa antolatu dute. Topaketa berezia izaten da honakoa, jende ezezagun asko elkartzen baita bertan. Launako taldeetan elkartu eta 20 minutuz gai zehatz bati buruz hitz egin behar izaten dute. Denbora agortzerakoan taldeak aldatzen dituzte. «Oso esperientzia ona izaten da, motz egiten zaie». Bestetik, Parquetarrak egitasmoa abiatu zuten iaz, eta «oso ondo» funtzionatu duela azaldu du Gerrikok. Haur askok, nahiz eta etxean euskaraz egin, kalean gaztelaniarako joera dutela ikusi zuten, «eta garrantzitsua da haurrek euskara momentu goxo eta dibertigarri batekin erlazionatzea». Aldi berean, gurasoen eta haurren artean euskararen erabilera bultzatzeko lanketa egiten dute, eta mintzalagunek gustukoak dituzten egitasmoak (hikalaguna, kakorraz taldea, yoga...) antolatzen dituzte.

Doako saioak dira, eta 16 urtetik goragokoak apunta daitezke: *hondarribia.eus* atarian galdetegi bat betez, *mintzalaguna@hondarribia.eus* helbidera idatzita edo zuzenean 688 865 398 telefonora deituta. ■





Irati Odriozola eta Aitziber Arnaiz planarekin. Ondoan, udal langileei egindako aurkezpen saioko argazki bat. Leire Perlines / HITZA

Euskararen erabilera areagotzeko, plana

LEIRE PERLINES APALATEGI

OIARTZUN

Euskararen erabilera areagotzeko plana osatu du Oiartzungo Udalak, eta bertan 2027. urtera bitartean lortu nahi dituzten eta gauzatuko dituzten ekintzak zehaztu dituzte. Udalak sortu duen zazpigarren plana da, eta bost urteko iraupe-na izaten dute gisa horretako idatziek. Iraunaldi hori izaten dute planek, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak bost urtean behin planak onartzeko aginduak argitaratzen dituelako.

Iraileko plenoan onartu zuten erabilera plan berria, eta horrekin batera udalean lan egiteko oinarri izango diren hizkuntza irizpide batzuk ere onetsi zituzten. Irati Odriozola UEMAko -Udalerrri Euskaldunen Mankomunitate- euskara teknikariarentzat tresna

garrantzitsuak dira hizkuntza irizpideak, planean jasotako guztia nola egin behar den adierazten baitute. «Udalerrri euskaldun bati egokitutako irizpideak itsaso zabaleko itsasargi dira».

Aitziber Arnaiz, berriz, Oiartzungo Udaleko euskara teknikaria da, eta zehaztu duenez udal barrura begirako euskara plan bat da kurtso hasieran onartutakoa. «Udal jarduera euskaraz normaltasunez izateko edo bidea markatzeko egiten den plangintza da. Udalaren barruko funtzionamenduari begirakoa da, baina eragin zuzena dauka herritarrengan, gure zerbitzuen bidez harreman zuzena daukagulako haiekin».

KEMEN kudeaketa eta erabilerako markoan oinarritzen da txostena, eta

Odriozolaren ustez egitasmo horrek zerbait berria ekarri badu da kudeaketan indar berezia jarri duela. Bi adar bereizi ditu jarraian teknikariak: kudeaketa eta erabilera. «Oiartzungo udala oso egoera onean dago; alegia, ehuneko handi batean plan honek eskatzen dituenak beteta ditu dagoeneko, baina findu beharreko gauzak daude». Beraz, hori da plan honekin lortu nahi dutena, fintzeko dituzten gauza horietan azpimarra jarri eta 2027. urtea horiek lortuta agurtzea.

Erreakzioaren garrantzia

Udalak kontratu labur, luze eta diru laguntza lehiaketak bezalako tramite mordo bideratzen ditu, «lan asko egiten da», eta teknikariek zehaztu dute «zaila dela horiei guztiei ezarritako hizkuntza klausularen betetze maila neurtzea». Hortaz, aldaketak egin eta zehaztu dute jarraipen hori kontratua gauzatu duen sailaren arduradunak egin behar duela eta ez, berriz, hizkuntza normalizatzaile edo teknikariek. «Jarraipenari dagokionean ditugu hutsuneak», dio Odriozolak.

Aitzitik, udaleko langileek zehaztu dute plan berri horretan erreakzio bat izatea landuko dutela. Batzuk legea urratzen dutenaren jakitun dira, baina udalak Euskal Herriko administrazio batzuetatik dokumentuak gaztelania hutsez jasotzen dituela deitoratu dute. Beraz, langileei gogorarazi nahi izan diete Arnaizek zein Odriozolak dokumentuak gaztelania hutsean jasotzen dituztenean «lidergoa» hartu eta erantzun egin behar dutela. «Udalean euskaraz egiten dugu lan, beraz, bidal ezazue testua gutxienez euskaraz edo euskara hutsean. Guri euskara hutsean bidaltzeak balio digu»; gisa horretara erantzuteko eskaria egin die UEMAkoak udal langileei.

Arnaizek trebakuntzan sakondu du. Alor horri dagokionean, udal langileek gero eta gaitasun gehiago izan



ditzaten nahi dute, testuak «txukun eta modu ulergarri batean» idazteko. Euskara teknikariak azaldu du jakina dela administrazioko hizkera ulertzeko zaila dela; alabaina, azaldu du gizartea ohituago dagoela testu zail edo nahasgarriak gaztelaniaz irakurtzera, euskaraz irakurtzea baino. «Baina ohitura kontua da».

Euskara ulergarria

Hala ere, alde positiboa bilatu dio horri: «Euskarak badu abantaila bat, eta da administrazioan berriagoa dela gaztelania baino, beraz, aukera gehiago ditu hobetzeko eta berritasunak sartzeko».

Ziurtasun legal guztiak beteta euskara ulergarria erabili behar dela defendatzen dute bi teknikariek. «Ahal dela herritarrari gerturatu behar gaitzaizkio testu ulerterrazak idatziz». Gakoa da horretarako UEMA. Izan ere, trebakuntza saio presentzialak eman eta hilabetero gomendioak helarazten dizkie langileei.

Epaitegietatik iritsi den euskararen



aurkako oldarraldia ere izan dute hizpide Odriozolak eta Arnaizek. Egoera «kezka» bizi dutela azaldu dute, edozein momentutan edozein udal izan daitekeelako «oldarraldiaren biktima». Aldi berean, lasai daude. «Gauzak legez egiten ditugu; beraz, konbentzimentuz jarduten dugu», nabarmendu du Arnaizek. «Ziurgabetasuna eragiten digute gure hizkuntzarekin bukatzeko asmoa duten kanpoko interesek. Baina guk argi dugu lanean jarraituko dugula gure eskubidea delako, herritarren es-

kubideak bermatu nahi ditugulako, eta gure hizkuntza maite dugulako», adierazi du Odriozolak. Gogorarazi dute «zeharkakotasunez» landu beharreko gaia dela hizkuntzarena, eta betaurreko horiek etengabe jantzita izatea «garrantzitsua» dela. ■



Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu esteka hau: labur.eus/B4trt

Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuako Zentroa
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
Basque VET Applied Research Centre

Tknikan eta Lanbide Heziketan euskaraz

Zamalbide auzoa • 943 08 29 00 • Errenteria
www.tknika.eus

EUSKADIKO INDIKARITZA GOBIERNO VASCO

Fp
EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETA

Euskara kontzientzia lantzeko proiektua

Udalerriko hiru eskolek, Hondarribiko Udalak eta Emunek elkarlanean duten proiektuari segida emateko hiru urteko kontratua sinatu berri dute, eta luzagarria izango da.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

HONDARRIBIA

Euskaratik berrikuntza sozialean eraldaketarako lan egiten duen kooperatiba da Emun, eta duela urtebetetik hiriko hiru hezkuntza zentroen bidelagun da, udalarekin batera. Elkarrekin hizkuntza asertibitatea, kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza portaera ekologikoak lantzeko proiektu integrala ontzen ari dira.

Lehen minututik ezagutzen du Ainhoa Lasak proiektua. Emuneko aholkularia da, eta Martin Ugalde Kultur Parkean lanean zebilen egun batean, bertako langile eta Talaia Eskolako Lehen Hezkuntzako Guraso Elkarteko kide den batekin kafea hartzen ari zela, honakoa galdetu zion: «Zuek zer

edo zer egiten al duzue hezkuntzan?». Galdera simple hura izan zen egitasmoa pizteko lehen txinparta. Talaia Guraso Elkarteko kideei Zarautzen duela hamar urtetik egiten duten lana azaldu, eta halako zerbait egiteko beharra argi ikusi zuten. «Laguntzeko prest ginela esan genien, baina edozein kasutan herri mailako lanketa izan behar zela, herriko diskurtso soziala aldatzeko».

Orduan, gainontzeko eskoletako zuzendari eta arduradunekin bildu eta, «nork bere lekutik», kezka berdintsua zutelako ikusi zuten Emunekoek, eta eskolatik eskolara eta udaleko zenbait departamenturekin lan egiteko prest agertu ziren. Udalaren babesarekin, argi berdea eman zioten proiektuari.



DBHko talde eragilea: Uxue Royo, Marilis Telletxea, Ainara Ibarгойen, Igor Mujika eta Ainhoa Lasak. A. Mendizabal

Orduko hartan ezin imajinatu zezakeen Lasak konpromisoa zenbaterainokoa izango zen. «Izugarria izan da. Ekainean egin genuen aurreko ikasturteko azken bilera, eta urrikora etxeko lan pila bat eginda etorri ziren. Harrituta geunden. Gu kurtsoa irekitzera gindoazen, baina lanean hasita zeuden ordurako. Oso eskertuta gaude. Horren jarrera proaktiboa ez da ohikoena izaten. Erreaktiboa, konpromisozkoa eta txukuna, bai, baina hau beste koska bat harago joan da». Nolabaiteko gosea eta ilusioa antzeman zituen Lasak bilera horretan.

2023-2024 ikasturtea

Aurtengo urtarrilean hasi ziren lehengo pausoak ematen. Emuneko aholkulariek DBHko 4. mailako ikasleekin pare bat saio egin zituzten, ironikoki *Gaztelaniaren abantailak* deiturikoak. Gazteek zuten diskurtsoa ezagutzea izan

amets sukaldeak
sukalde eta bainugela estudioa
Eraman euskara zure barnean!

dica. banatzailea
www.dica.es

Zubiko 15, behea
20100 Lezo
t. 943 341678
ametsukaldeak@gmail.com
www.ametsukaldeak.com



zen dinamika horien helburua, «nola bizi zituzten hizkuntzak, emozionalki euskarak nola ukitzen dituen...». Bildutakoaren irakurketa egin eta hainbat lantalde sortu zituzten. Batetik, talde motorra sortu zuten. Hiru eskoletako zuzendariak, udaleko ordezkariak eta Emuneko kideak daude bertan. Beste alde batetik, hiru talde eragile —HHko, LHko eta DBHkoak—. Lehen bi maila horietan lan egitea erronka potoloa izaten ari da Emuneko kideentzat.

HHn eta LHn ikas orduetan hizkuntzaren kontzientziazioaren lanketa egiten hasteko guneak, momentuak, egitekoak, metodologia... identifikatu zituzten iaz; hau da, adin maila ezberdinetan hizkuntzari buruz izan beharko luketen kontzientzia maila identifikatu eta elkarriketa horiek nola sortu aztertu zuten. 2024-2025 ikasturtean landutakoak ikasgelara eramango dituzte.

DBHn, aldiz, bi interbentzio mota egingo dituzte. Batetik, aholkulariek ikasleekin launa soziolinguistika saio

egingo dituzte eskola bakoitzean eta horietan bai, ikasleengan «klak» bat bilatuko dute. Bestetik, irakasle bakoitzak bere ikasgaia «traizionatu» gabe euskara kontzientzia pizten ahalegingduko dira. Orain artean maila bakoitzean zer landuko duten identifikatu dute, eta aurtengo ikasturtean edukia sortzea izango dute helburu.

Aldaketarako indarguneak

DBH4ko gazteekin egindako saioetan, haiek euskararen erabilera baxua dela, eredu falta dagoela, ez dituztela eredu euskaldunak ezagutzen, edo lotsa eta deserosotasuna aldagaiak direla adierazi zuten. Baina, aldi berean, aukera izan daitekeen indargune bat identifikatu zuten aholkulariek: «Iruditeriari dagokionez hondarribiartasuna eta euskara bat doaz da gazteentzat, era orokorrean gainera». Erantzukizunarekiko pertzepzioari dagokionez, berriz, gehiago egin beharko luketela uste dutela azaldu du Lasak, «orain zergatik eta zertarako falta zaie». ■

Euskararen Eguneko 24 orduko zozketa!

HITZA

Oarsoaldean ondutako liburu sorta

Bakarrik abenduaren 3an
izango duzu parte hartzeko aukera, adi egon!

labur.eus/ab3

Oarsoarrak sariaren etenaldia, garaikurra hautatzeko

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

ERRENTERIA-ORERETA



Asteartean eman zituzten sariketaren gaineko argibideak. Ikerne Zarate

Oarsoarrak Euskararen Sariaren garaikur berria hautatzeko lehiaketa martxan jarri du Oarsoaldeko Euskara Batzordeak. Hori horrela, etenaldia egingo du aurten sariketa horrek, garaikur berria hautatzeko. Deialdia Oarsoaldeko artista guztiei zuzendu die sariaren antolatzaileak, eta gaurtik aurrera izango da aukera lanak aurkezteko. Horiek arte plastikoetako edozein diziplinetakoak izan daitezke, eta euskara eta Oarsoaldea iradoki beharko dituzte. Lanak bozeto gisa aurkeztu behar dira, eta hautatua denak 2025eko apirilaren 11tik urriaren 6ra arteko epean egin beharko du pieza. Martxoaren 14ra arte aurkez daitezke proposamenak.

Lanak jasotzeko epea zabaldu eta bi hilabetera ez badira zortzi lan baino gehiago aurkeztu, Euskal Herri osora

zabalduko dute lehiaketa. Irabazleak 2.500 euro jasoko ditu, «sari horrek gain hartzen ditu obra sortzeko gastuak, eskusibitatea eta ordainsaria». Hautatutako artelana izango da 2025eko azaroaren 28an egingo den Oarsoarrak Euskararen Sariaren garaikurra. Lehiaketaren oinarri zehatzak oarsoarrak.eus webgunean ikus daitezke.

Asteartean egin zuten agerraldia eskualdeko euskara zinegotziek eta Oarsoaldeko Euskara Batzordean parte hartzen duten eragileek, Errenteria-Oreretako Koldo Mitxelenaren omenezko eskulturaren gerizpean. Beste jakinarazpenik ere egin zuten: aurrerantzean bi urtetik behin egingo dute Oarsoarrak Euskararen Saria.

2010ean jarri zuten martxan sariketa eskualdeko udalek, Oarsoaldeko Euska-

ra Batzordearen bidez. Sariaren xedea da euskararen normalizazioaren alde urrats esanguratsuak egin dituzten Oarsoaldeko eragileen lana aitortzea. Lehenengo ekitaldian Juanba Berasategi eta ABB Niessen lantegiko euskara batzordea izan ziren sarituak. Hortik aurrera, besteak beste, Asier Altuna eta Telmo Esnal zinegileak; Banaiz Bagara elkarteak; Peio Jauregi ikerlaria, Izaskun Madariaga, Agustina Pontesta eta Lurdes Sistiaga andereñoak; Mikel Astarloza txirrindularia; Labore Oarso, edo Antton Valverde abeslaria izan dira sarituak.

Aurtengoa sariketaren «inflexio puntua» izango dela azaldu dute: «Aurtengo ekitalditik aurrera, bi urtetik behin egingo da sariketa, eta garaikurraren berritasunarekin aldi berri bat hasiko dugu». ■

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa
baino askoz gehiago



Az.28-Ab.13
2024



EUSKARAREN ASTEa

Oiartzun

Azaroak 28, osteguna

19:00// Ikasleen pintxo lehiaketa (AEK)

Azaroak 29, ostirala

Hautzaro ikastolaren festa ikastetxean (Hautzaro ikastola)

18:00// "Oiartzun kantuan" plazatik hasita (Oidultz)

Azaroak 30, larunbata

10:00// Azoka plazan (HemenGuk)

10:30// Euskal mitologian inspiratutako jolasak (Euskaraldia batzordea)

20:30// Bertso-afari biyurria (Biyurrienea)

Abenduak 1, igandea

9:00// "Golz del kantatu" golz dela plazatik (Lartaun Txistulari T.)

Abenduak 3, asteartea

Elizalde HE euskararen festa ikastetxean (Elizalde H. Eskola)

10:00// Mintza-jolasak eta pintxoak (AEK eta Gazte izanak)

17:00// Kantu-jira plazatik hasita (Lartaun abesbatza)

18:30// Euskararen aldeko herri argazkia (Euskaraldia batzordea)

19:00// "Zatoz euskarari kantatzera" Elizan (Lartaun txistulari T.)

Abenduak 4, asteazkena

17:00// Prosa eta poesia lehiaketaren sari banaketa (Oiartzungo udala)

Abenduak 5, osteguna

Elizalde BHiren festa Madalensoron (Elizalde BHI)

Abenduak 13, ostirala

20:30// Kantu-pizza elkarte batean (Euskaraldia batzordea)

Izen ematea: <https://labur.eus/kantupizza>



«Euskara auzotzeko» hiru euskara egun

Euskara auzoan errotzeko hirutan ospatuko dute Euskara Eguna Larreaundi-Olaberrian, bertako auzo elkarteko euskara batzordearen ekimenez: bihar, eta abenduaren 3 eta 4an.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

IRUN

Larreaundi-Olaberria auzo elkarteko Euskara Batzordeak hiru urte darama auzoan euskara sustatuz tira eta bultza. Auzo elkartean belaunaldi aldaketa egon zen 2021ean, eta auzo elkarrekin gizarde eraldaketarako balio behar duela sinetsita batu zen hara Iker Eizagirre Xufi. Egun, bertako Euskara Batzordearen parte da, eta gizardea eraldatzeko balio garrantzitsutzat jo du euskara; «erdigunean eta presente» dute. Bide horretan, auzoa euskaldundu edota «euskara auzotu» nahi dute. Espresuki Euskararen Eguna antolatzeko sortu zen batzordea, baina poliki-poliki euskara ardatz daukaten bestelako bideak ireki dituzte: euskara klaseak AEK-ren eskutik; haurrentzako literatura taldea;

aisialdi taldea; edota auzo elkartean komunikazioaren euskalduntzea.

Bi bide jorratu behar zituztela adierazi du Eizagirrek; alde batetik, euskara jakin ez eta euskara ikasi nahi duenari baliabideak ematea, «beharginek ez dutelako oso erraz»; bestetik, euskara dakitenek auzoan euskaraz bizi ahal izateko lan egitea. Helburu horiek lortzen ari direla uste du Eizagirrek, eta adibide gisa jarri du euskara ikasteko taldera ikasle gehiago batu direla, eta Euskara Batzordeko kideen kopurua ere nabarmen hazi dela. Bi taldeak handitzea Korrikak Irunen utzitako arrastoaren eta auzo elkartetik azken hiru urtetan egindako lanaren ondorioa dela uste du Eizagirrek. «Eguzkitza ikastetxeko ordezkari bat batu da,

adibidez, eta ekosistema bat sortzen ari gara Euskararen Eguna bezalako jarduerak antolatzerakoan gauzak errazten dituen».

Auzoa, «auzokideek» egiten dutela uste du Eizagirrek, eta pasadizo horietan guztietan egiten dute topo haur, guraso, nerabe, dendari, irakasle, etxeko langile, jubilatua eta ekintzailak. «Horiekin elkarreaginean egiten gara auzotar, eta batera, egiten dugu Larreaundi-Olaberria».

Bi auzoetan «estres linguistikoa» dagoela ondorioztatu dute, hori ez da «oso atsegina» batzordekideentzat. Auzoan bizi duten «talka» horrek «norbere hizkuntzan bizi ahal izateko eskubidearen urraketa sistematikoarekin» lotuta dagoela azaldu dute. Euskaldunaren «arazo psikologikotzat» jo dute, auzi sozialaren gainera. «Nola jardungo naiz dendariarekin? Eta nola parkean topatuko ditudan gurasoekin? Eta auzo elkarteko asanbladan? Nola egin lehen agurra iritsi berri den bizi-lagunari? Eta batez ere... nola segi bueltan jasotzen dudana desairea bada? Horiexek dira euskaldun estresatu bat estutzen duten galderak».

Egun bat baino gehiago

Aurtengo euskararen egunak euskara dakitenei eta ez dakitenei zuzendutakoak dira. Batetik, egunerokoa euskaraz egiten duen auzokide «tematiari» begirakoak, bere jardun setatia ospatzeko egunak izango direlako; bestetik, euskaraz egin ez baina hizkuntzarekiko begirunea duen auzokideak komunitatea euskalduntzeko aukera izango du, dantzatzu, abestuz eta bazkalduz. «Denon artean euskara sustraitu dezagun. Elkarrekin eta euskara lanabes hartuta, josi dezagun auzoa».

Egitarau erakargarri bat osatzea lehenetsi dute, eta egun batera mugaratu beharrean, hiru egunetara zabaltzeko hautua egin dute. Horrez gainera, abenduaren 3a asteartea izateak zaildu egin du ahalik eta jende gehien biltzea Euskararen Eguneko ekitaldietara. Beraz, bihar (larunbata), abenduaren 3an eta abenduaren 4an ospatuko dituzte euskararen egunak. «Hilaren 30ean bezala, abenduaren 3an eta 4an ere

GURE PROIEKTUAREN GILTZA: KONFIANTZA.

- BAKARKAKO ARRETA IKASLEENTZAT ZEIN FAMILIARENTZAT.
- HIZKUNTZA PROIEKTUA.
- IKASGELA DIGITALAK.
- BI HOTZAREKIN HEZTEN 1903TIK.

matritzula@telerialda.com | T. 943 51 12 13 | BITTOR IZKAZARAL, 1 - ERRENTERIA

EGITARUA

BIHAR, HILAK 30

- **Roberto eta Migel plazatxoan.**

11:00etan, ongi etorria bertsoetan; 11:15ean, euskarazko materialen bigarren eskuko azoka ikas bidaia ordaintzeko; 11:50ean, euskararen aldeko txotxa; 12:30ean, kantu biraren hasiera auzoan barrena.

- **Eguzkitza HLHIren atarian.**

14:00etan, bazkari auzotarra; 16:00etan, bingoa.

- **Auzo elkarteetan.**

17:00etan, Ostomilarekin haurrentzako txotxongiloak.

- **Eguzkitza HLHIren jolastokian.**

18:00etan, txokolatada; 18:30ean, Larreaundi-Olaberrian euskaraz? ekitaldia; 18:50ean, buruhandiak; 19:30ean, Babarrunba taldearekin euskal runba kontzertu ibiltaria.

ABENDUAK 3, ASTEARTEA

- **Auzoan zehar.** Eguzkitza BHiko ikasleentzako herri kirolak.

- **Eguzkitza HLHIin hasita.**

16:45ean, kantu bira auzoan zehar, haur, gazte eta helduentzat.

- **Auzo elkartearen lokal berrian.**

17:30ean, txokolatada.

- **San Juan plazan.**

19:00etan, euskararen aldeko elkarretartzea.

ABENDUAK 4, ASTEAZKENA

- **Auzo elkarteetan.**

17:00etan, Bakarne Atxukarro ipuin kontalaria.



Euskararen egunen antolaketan dabiltzanak, aurkezpen agerraldian. A.A

euskara etxetik kalera eraman dezagun; gogotik mihira», bultzatu du Eizagirrek.

Horren harira, auzo bazkaria antolatu dute biharko Eguzkitza ikastetxean. Tiketak 15 euroan helduenak eta 10 euroan haurrenak eros daitezke. Horiek lortzeko Antunez eta Olaketa ostuetara, Larrea janari dendara edota auzo elkartera —goizez— joan behar da. Menuaren hasierakoa entsaladilla pintxoak izango da, eta plater nagusia marmitakoa. Deserta, arroz esnea. Ondoren bingoa izango da.

Egun horiek antolatzeko, Euskara Batzordea ez da bakarrik aritu. Laguntzaile fin izan ditu auzo elkarteko haur literatura eta aisialdi taldeak; auzo elkarteko euskara ikasleak; Irungo AEK;

Eguzkitza HLHI eta BHiko ikastetxeak; Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea; Larrea janari dendara; Ostomila txotxongilo taldea; eta Irungo Udala.

Euskarak saria du

Euskarak saria du kanpaina martxan jarri du auzo elkarteak bigarren urtez, eta helburua auzoko komertzioetan euskaraz hitz egitea bultzatzea da. Lehiaketa horretan parte hartzeko saltokietan lehen hitza euskaraz egin behar da, eta horrela zozketa baterako txartela jasoko du bezeroak. Kanpaina abenduaren 4ra arte egongo da martxan, eta honako komertzioetan lor dezakete euskaraz arituko direnek tiketa: Marte sorkuntza laborategia; Lurra belar dendara; Larrea janari dendara; Fylab fisioterapia; Antunez-Pipos ostaldea; Migas okindegia; Ugari supermerkatua; eta Ur ile apaindegia. ■

EGUZKITZA HLHI

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

ENTZUN, PENTSATU... HITZ EGIN!

EGUZKITZAN EKIN!

Victoriano Juaristi, 1 IRUN 20304 Tel.: 943 89 91 61
E-posta: 013372aa@hezkuntza.net www.eguzkitza.hezkuntza.net

baikara
KALITATEA HEZKUNTZAN



Sisifo Tizianoren margolan batean. HITZA

Bertso-sorta hau ere heldu da

1) Bertso-sorta hau ere heldu da, beste guztien gisara, kanpai hotsaren soinu ozenak deitzen du ehorzketara. Sorta azalpen-bertso batekin abiatu behar bada, Hitzari egin diodan azken entrega hau, beharbada, sortzaile baten heriotzaren iragarpen kronika da.

2) Zer da esan nahi nukkeen hori? Zer da esan behar dena? Gogaigarri zait hitz-hartzearen gurutze-bide zekena! Egin ditudan bertso-sortetan, urte hauetan barrena, idatzi ezin izan dudana da adierazgarriena eta idatzi dudana ez da adierazi nahi nuena.

3) Dekadentzia protagonista egin den agerraldian ez da porturik nora itzuli; ez da itzalik argian. Iparrorratzak iparririk ez du aurkitu azken aldian, nori edota zeri idatzi aritu naiz aspaldian heldulekurik ezin bilatu nabilelako, agian...

4) Mundutik nire baitara doan berotegi efektuak neuzkan ideien iturburuak utzi ditu idortuak. Nihilismoak ebatsi dizkit nituen heldulekuak NItik arituz GUa ez ote du irentsi ezlekuak... agian oso urrun joan naiz sortu nahian NItik GUak.

5) Inoiz federik izan ez duen abadea otoitzean, alkohol idorra eta zigarro biharamuna goizean, narda puntua bikotearen musuetara ohitzean, korapilo bat ahots-kordetan bertso berri bakoitzean... esanahietik esan nahiera Ulises naiz Odisean.

6) Mendian gora Sisifo edo eguzki bila Ikaro sortak idazten kalbariotik gehiegitan naiz igaro. Saiatu erruz saiatua naiz; jada ezin dut gehiago. Orain bezala jarraitzekotan, bukaera argi dago... epikoa ez izanagatik asumitzeko prest nago.



DOINUA:
SENTIMENTU ASKO
DAUZKAT NIREKIN
EGILEA:
ADRIAN ARRUTI BERNADET

IRUNABAR IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEAREN ETA HITZAREN ARTEKO ELKARLANAREN EMAITZA DA HONAKOA. 'ZUREA DA HITZA' ATAL HAU OARSOALDEKO ETA BIDASOKO ERAGILEEI ZABALIK DAGO.



**Euskaraz zara,
euskaraz gara.**

Lezo euskaragarri



Lezoko
Unibertsitateko
Udala



Hondarribiko Udala

GI-636 ERREPIDEAN, ZUHAITZ KIMAKETA

MADDI GOIKOETXEA JUANENA

Gaur eta bihar, jaitzua inguruko hainbat platanondoren kimaketarekin eta beste batzuen mozketarekin jarraituko duela gogorarazi du Hondarribiko Udalak. Zehazki, Txingudi ikastola pareko eta Gi-636 alboan dauden zuhaitzak dira lanen iturburu. Horren eraginez, lanek iraun bitartean semaforo bidez arautuko dute bertako trafikoa.

Udalaren arabera, haizetea denean ibilgailuentzat eta ikastola inguruko haurrentzat arriskutsuak dira zuhaitz horiek, landatu zirenean haien arteko distantzia txikia ezarri, eta mehe-mehe hazi direlako.

Santomasetan txosna jartzeko aukera

Santomasetan, abenduaren 21ean, txosna jarri nahi dutenentzat tokia eskatzeko eskaera epea zabaldu du Hondarribiko Udalak. Interesdunek abenduaren 2ra arte izango dute izapideak egiteko tarte Udala Erregistro Elektronikoaren bitartez. Arrantzale auzoan txosna bat

ezarriko du udalak, hasiera batean bakarra aurreikusi baitute. Hala ere, bigarren txosna bat jartzeko aukera balora deza keela jakinarazi du udalak. Bigarren hau Santiago kalean kokatuko litzateke. Esleipenduna abenduaren 9an jakinaraziko dute, egun horretan egingo baitute zozketa, 13:30ean, udaletxean. Prozedura osoaren gaineko informazioa udalaren webgunean (hondarribia.eus) lor daiteke.



Dantzarekin, herrien arteko elkartasuna

Haweia taldea Palestinako Ipar Zisjordanian Askar errefuxiatu-eremuan bizi diren 15 pertsonaz osatua dago, eta Dabke izeneko dantza tradizionalak egiten dituzte. Lille eta Nablus Adiskidetasun Elkarteak, Lilleko Udalak eta Katalunian Palestinar Komunitateak bultzatuta Europako bira egiten ari dira, eta Hondarribian ere izango dira birarekin. Etxara Hondarribia Elkarteak eta Hondarribiko Udalak elkarrekin antolatuta dute Haweia dantza taldearekin trukea. Gaur (ostirala) eta bihar izango dira herrian.

Gaur dantza emanaldia eskainiko dute, 20:00etan hasita, Itsas Etxean. Bihar (larunbata), berriz, bi ekitaldi: batetik, olibondoa landatuko dute 10:00etan Kasino Zaharreko parkean palestinarrek eta bertako agintariek; bestetik, 12:00etan hasita, Kemen Dantza Taldeko kideekin batera Dabke dantzaren tailerra eta kalejira egingo dituzte.

Dabke dantzaren bidez «palestinar herriaren identitatea gorde eta zabaltea» dute helburu, «palestinar herriaren erresistentzia, batasun eta ondare kulturalaren sinboloa» baita.



Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA
943 634 536 www.goleko.com

Gure lurra, gure hizkuntza. Zaindu ditzagun!

Iruntzenekin, su ebakira eta buelta

LEZO. Iruntzen Lezoko Emakume Taldeak emakumeentzako mendi ibilaldi gidatua antolatu du biharko (larunbata). Ibilbidearen jopuntua Jaizkibelgo su ebakira izango da, eta gidaria Maddi Market. Gurutze Santuaren plazan elkartuko dira bidea egin nahi dutenak, bi aukerekin: 08:30ean bidea oinez egin nahi dutenak hasiko dira, eta 09:30ean trostan ibiliko direnak. Behin mendibuelta eginda, hamaiketako oparoa izango dute zain Tiñelu elkartearen, solasean, esperientziak trukatzeko eta elkar zaintzen diren bitartean.

Kirola, natura, aisia eta zaintza kolektiboa uztartuko dituzte jardueraren bitartez, ibilian zein lasterka. Adin tartetik ez da irteera gidaturako, emakume orori egin dio gonbita Iruntzenek. «Inongo presiorik gabe eta beste parte hartzaileen babesarekin, espazio seguru batean» egingo dute bidea: «Anima zaitetze, bakarka edo lagunekin».



Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra

MATTIN ETXEBESTE, EUSKAL HERRIKO ONENA

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

OARSO BIDASOA. Hilaren 23an izan zen Hondarribiko Itsas Etxean gipuzkoar erako Euskal Herriko VI. Aurreku Txapelketa. Mattin Etxebeste oiartzuarra izan zen irabazlea, beraz, Tomas Muruaren eskulturak urtebeteko egonaldia egingo du Oiartzunen.

Etxebesteren segidan Mikel Esnaola lezoarra (iazko irabazlea) izan zen bigarrena, Irati Olaizola legazpiarra hirugarrena, eta Ihintza Erauskin lezoarra laugarrena. Zortzi dantzari lehian, Manex Elgeta oiartzuarrak zazpigarren postua egin zuen bere.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE LABEL HARATEGIAK
— 100% GURE —
BASERRITARREKIN

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

IRUN:
MIKEL ZABAL HARATEGIA - San Pedro Kalea z/g

hazi

EUSKO LABELA



Oldarraldiaren kontra San Juan plazan elkartuko dira. A.A

Oldarraldiak ez du etenik, eta Euskararen Egunean elkarretaratzerara deitu dituzte irundarrak AEK-k, Aitzondo Irungo Euskara Elkartek, Betti Gottik eta Irunabar Irungo Bertsoaren Bilguneak. Euskararen normalizazio eta biziberritzea lehentasuna izan dadin eskatuko diete erakunde publikoei. Elkarretaratzea San Juan plazan izango da, 19:00etan.

Euskarak eta euskaldunek ospakizunerako baliatu beharko lukete abenduaren 3a. Aitzitik, Euskalgintzaren Kontseiluak egindako adierazpenei «ezin» dietela entzungor egin salatu du Beñat Alzaga AEK-ko zuzendariak, eta euskararen kontrako azken neurriak eta haien aurrean egindako mobilizazioak zerrendatu egin ditu: «Urriaren 29a –oldarraldi judizialaren kontrako elkarretaratzea egin zen– irundarron kontrako enegarren eraso salatzeko eguna izan zen; eta hilaren 9an ofizialki larrialdi linguistikoan gaudela adierazi zuten».

Euskarak aurtengo bere egunean ez du zer ospatu

Euskararen kontrako oldarraldiaren aurrean Irunen mobilizatzeko deia egin dute hainbat eragile euskaltzalek. Hizkuntza politiketan «jauzi bat» behar dela aldarrikatuko dute abenduaren 3an.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Euskara «larrialdi linguistikoan» izatea, oldarraldi judizialek harago doala ohartarazi dute Irungo euskalgintzako eragileek. Euskararen erabilera soziala «ahula» da, hau da, egunerokotasunean herritarren %17k erabiltzen du euskara gehiagotan erdara baino. Datu horren aurrean kezka adierazi dute, oso hitzun gutxi dituelako hizkuntzak. «Ahultasun horrek lotura estua du euskararen eta euskararen hitzun komunitatearen estatusarekin», zehaztu dute.

Neurri egokiak, «epe laburrean»

Euskara ofiziala da Hego Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako zati handi batean ofizialtasun hori ukatua dela gogorarazi dute. Hargatik, egungo joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak eraldatzeko neurri egokiak «epe laburrean» hartzeko exijitzeko kalera irteteko deia egin dute. Berehala egin ezean, «atzeraldia» etorriko baita haien ustez.

Hizkuntza politiketan «jauzi bat» egitea ezinbestekoa dela uste dute, «instituzioei dagokie ausart jokatzea, adostasun sozialari erreparatzea, eta euskaldunok erdigunean jartzea». Horregatik, euskara ofiziala den eremuetan haren aldeko hizkuntza politikak «eraisten ari den» epai sorta salatu dute. Epai horiek «normalizazio eta biziberritzearen aurkako oldarraldi judizial gogorrak» direla zehaztu dute.

Globalizazioaren eragina ere izan dute hizpide, eta horrek hizkuntzaren ahultasuna areagotu egin duela deitoratu dute. «Globalizazioaren eta bizitzaren digitalizazioaren eraginez hizkuntza hegemonikoak are eta hegemonikoagoak dira, hizkuntza minorizatuak are eta zaugarriagoak diren bitartean».

Euskara larrialdi linguistiko bizi-tzen ari dela esatea, ez dela arrangurarako deia adierazi dute, euskararen normalizazio eta biziberritzea onbidertzeko lehen urratsa emateko modua dela baizik. «Biziberritze eta normalizazio prozesuak guztiok behar gaitu», aldarrikatu dute. Aldarri horiek ozen oihukatzeke, abenduaren 3an San Juan plazan biltzeko deia indartu dute. ■



Beldur Barik, gazteen bideo bidez

Hilaren 23an banatu zituzten Beldur Barik lehiaketaren hamargarren ekitaldiko sariak, Ficoban. Irunen ikasi edo bizi diren 12 eta 20 urte bitartekoen ikus-entzunezko lanak saritzen dira, betiere indarkeria matxista lantzen dutelarik bideo horietan.

Bi kategoriatan bereizten da lehiaketa; lehenengo kategoriako sari nagusia Hirubideko ikasleen *Safari feminista* lanarentzat izan da. Aldiz, bigarren kategoriako sari nagusia Irungo La Salle BHI ikastetxeko ikasleen *Gizarte matxista metaforen arabera* lanarentzat izan da.

Hiru parking berri egiteko, azterlanak

Irungo eremu publikoaren zati handi bat ibilgailu pribatuaren aparkalekuek okupatzen dute, eta Irungo Udalak adierazi du eremu horietako zenbait oinezkoentzat izan daitezkeen berreskuratze lanean ari dela. Zentzu horretan, hainbat zonaldetan aparkalekuak murriztu dituzte, beraz, plaza gutxiago ditu hiriak. Hartara, arazo horri aurre egiteko lanean dabiltzala azaldu du udal erakundeak, eta jakinarazi du Katea, Larreaundi eta Dunboa auzoetan aparkaleku berriak egiteko bideragarritasuna aztertzen hasi direla.

Hori egiteko eta proiektuak gauzatzeko 139.000 euroko aurrekontua onartu du. Larreaundiren kasuan, Berio kalean parkinga egiteko proiektuaren enkargua egin dute, 60.000 euroko kostuarekin; Dunboakoaren egikaritze proiekturako, 44.000 euro gorde ditu; eta Katean parking eremua egiteko azterlanak 35.000ko aurrekontua izango du.



Udala, 'Euskaratik etorkizunera'

Euskaratik etorkizunera lelopean, Euskararen Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Irungo Udalak. Oiasso museoan izango dira horietatik asko, beraz, han aurkeztu zuten egitaraua: gaur hasi, eta abenduaren 7ra arteko epean egingo dituzte jarduerak. Horiek bidasoa.hitza.eus webgunean ikus daitezke.

Leloak, euskararen etorkizuna bermatzeko beharrari egiten dio erreferentzia udalaren arabera, «erabiltzen ez den hizkuntza bat galdu egiten da». Gogorarazi dute «guztion ardura» dela euskara bizi-rik mantentzea.

labureus/N7U38

EUSKARAK du HITZA

HITZAk du EUSKARA

Euskara ez delako egun bakarreko hizkuntza

Euskaraz nahi dugulako hitz eta jolas

Euskaraz elkar ulertu nahi dugulako, ikasi nahi dugulako, informatu nahi dugulako

Euskara sustatu, HITZA sustatu.

Horrelakoa nahi dugu bizitza. Gurea baita HITZA. Euskaldunak baikara

Egin zaitez HITZAKIDE, abenduaren 3a baino lehen, eta ERRIGORAREN produktuen bisaskiren zozketan parte hartu!

OARSO BIDASOKO HITZA



Egitaraua aurkezteko egindako agerraldia. Mikel del Val

Euskaraz bizitzeko arigune sendoa josten

Udalerrria arigune dela eta bertan euskaraz aritzeko aukera badagoela nabarmen jartzen ari dira hamaika eragile, Euskararen Egunaren harira antolatu duten egitarau zabalarekin.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Udalerrria arigune dela, eta hortaz, euskaraz aritzeko aukera ematen duela erakutsi nahi dute. Hori horrela, euskaraz bizitzeko aukera zabalak eskaintzen dituen egitaraua antolatu dute Euskararen Egunaren bueltan. Leloa: *Erreterian ari gara*. Herritar guztiei begira ondu duten egitarau zabalaren atzean, hamaika eragile eta Erreterriako Udala: Lau Haizetara Euskaltzaleon Topagunea, Xenpelar Bertso Eskola, Xenpelar AEK, Kantu jira, Badalab, Oarsoaldeko Euskara Batzordea, Talaios Koop, Nieszen elkarte eta SOS Arrazakeria.

Horiez gain hainbat udal departamendu ere aritu dira egitaraua osatzeko lan horretan. Hala, Udal Hizkuntza Politikakoa, Erreterriako Udal Euskaltegia, Herri Arte Eskola, artxibategia, liburutegia eta Kirol arloak ere jarri dute alea.

Programazioa martxan da, eta abenduaren 14ra arte izango da zer gozatu. Berritasunen artean, pasa den igandean 150 kirolari batuko zituen ginkana zuten antolatua, baina haizeteak hura bertan behera uztera derrigortu zituen antolatzaileak. Igandean berrartuko dute ekintza hori. Aurretik, bihar bertan, Lau Haizetara Euskaltzaleon Topaguneak antolatuta herri bazkaria izango da. Txartelak 18 euroan dira salgai Arkaitza, Landare eta Leku Zaharra tabernetan, baita Xenpelar AEKn eta Lau Haizetararen egoitzan ere.

Musika, antzerkia eta jolasak

Etzi herri abestiek hartuko dute Euskararen Egunaren harira antolatutako lekukoa. Izan ere, Lau Haizetararen kantu jira egingo dute. Berezia izango da ekitaldia, Udal Txistulari

Taldeak lagunduko baititu 12:00etan Herriko Plazatik abiatu eta Erdialdeko kaleetan barrena egingo duten ibilbidean. Euskararen Egunarekin batera eta euskaltegi-tako ikasleei begira *Kanpora sartzen* antzezlan taularatuko dute. Xabinen istorioa lehen pertsonan idatzita kontatzen du antzezlan horrek, seropositiboa izanik bizitza nolakoa den erakusten du: pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, osasun mentala, terapia... Publiko gazteari eta familiei zuzendutakoa da lana, eta oreka bilatzen du sentimendu gordinenen eta umorearen artean.

Asteartean bertan 6-12 urte arteko haur eta nerabeei zein familiei begira *Familiak euskaraz jolastu* ekintza egingo dute ludoteketan (17:30-19:30).

Abenduaren 4an *Bilduma* aldizkariaren 32. zenbakia aurkeztuko dute Joxepa Antoni Aranberri anitzenean, 18:30ean hasita. Udal publikazio hori LGTBI+ kolektiboari begira jarriko da, eta zehazki #Kuirartxibo Biziak udalerriko LGTBI+ memoria osatzeko egindako lanketa jaso du azken ale horretan, *Betirako dantzan gure luma-tzan* goiburuarekin. Asteazkeneko egitaraua osatzeko trikitilari, dultzainari, eta bestelako dantzari eta kantarien emanaldia izango da Koldo Mitxelena ikastetxearen patio estalian.

Euskararen Egunaren harira antolatutako egitarauaren ginga abenduaren 14an jarriko dute eragileek. Egun horretarako familiei begirako ipuin kontaketa antolatu dute Lekuona Fabrikari, 11:30ean. Arratsaldean, berriz, Bulego taldeak *Aldatu aurretik* azken diskoa eramango du Lekuona Fabrikari. Bateria batek izango du joateko tentazioa akaso, baina emanaldirako sarrerak aspaldi agortu ziren, eta aurretik dagoeneko erosiak dituztenek baino ez dute kontzertu horrekin gozatzeko aukera izango.

Antolatutako egitaraua aberatsa eta askotarikoa da, herritar guzti-guztiek erantzuteko modukoa. Garrantzitsua da hori, baina are garrantzitsuagoa oraindik Euskararen Egunari begira ondutako hamabostaldia egi bihurtzeko saretu diren eragileen inplikazioa. ■

Familia Lagunaren laugarrena, martxan

Familia Laguna programaren ikasturte berria martxan da dagoeneko. Joan den astean abiatu zuten Haur eta Lehen Hezikuntzako sei ikastetxeetako 36 familiak programak egoitza duen Merkatuzarren. Topaketa horretan aurretik ari diren familiek eta orain hasiko direnek elkar ezagutzeko aukera izan zuten.

Hilabete honetan hasi eta ekainera arte, parte hartzen duten familiek kulturarteko harremanak eraikitzeke aukera izango dute programaren bidez, eskola eremuan, zein udalerrian. Bide horretan, programaren ardura duen bitartekari taldeak, aholkularitza, topagunea, baliabideak eta aisialdiko askotariko jarduerak jarriko ditu parte hartzaileen eskura, programa dinamizatzeko.

Abenduan bertan hiru ekintza izango dituzte aukeran Familia Laguneko parte hartzaileek: formakuntza saioa; topaketa gastronomikoa; eta udalak antolatutako bi antzezlanerako sarrerak doan.



Dani Novas

HANDIA IZAN DA HIBAIIKA EGUNA

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Aho zapore gozoa utzi du Hibaika Egunaren lehen ekitaldiak. Oiartzun ibaian zein herriko kaleetan handiak direla erakutsi dute arraun elkar-tekoek harrobiari aitortza egin, eta herriarekin sareak estutzea helburu zuten egunaren bidez.

Gogotik girotu zuten herria, eguraldia lagun, goizean egindako batel estropadaren bidez. Giro aparta ere ekitaldiaren ostean (irudian) Merkatuzarren mahaiaren bueltan elkartu ziren ia 200 laguneren artean. Hurrengo urtean, gehiago: «Hibaika Eguna gelditzeko dator-eta».

Klima eta Energia plana osatu du udalak

Oiartzungo Udala buru-belarri ari da lanean klima aldaketari aurre egiteko, eta bide horretan, 2030erako herri bezala lortu beharreko erronkak zehaztu ditu.

Azken 40 urteetan 1,2 gradu igo da Oiartzungo batez besteko tenperatura, eta prezipitazio kopuruak behera egin du. Bizi eta kontsumo ohiturak aldatuko ez balira, mende amaierarako 4,5 gradu igoko litzateke tenperatura, eta bero boladak, lehorteak eta gau tropikalak ere ugartu egingo liriateke. Urtean 22,2 euri egun gutxiago egingo lituzke, eta prezipitazio handiko egun gehiago eta uholde arrisku handiagoa egongo litzateke herrian.

Mugikortasun eremuan aldaketa sakinak bultzatzea eta energia trantsizioan zein elikadura burujabetzan pauso sendoak ematea ezinbestekoa da ondorio horiek gutxitzeko. Eta, Oiartzungo Udala klima aldaketaren aurka ari denez lanean, Klima eta Energia Plana ondu du.

2030. urterako energia eta kliman herri bezala lortu beharreko erronkak eta ekin-tzak zehaztu ditu udalak, eta abiapuntua ezagutzeko diagnosi bat egin dute herrian. Bertan ikusi dutenez, 2010etik %13 igo da

herriko energia kontsumoa, eta herrian sortutako gasak %3 handitu dira.

Azterketa sakon bat egin ostean, ondorioztatu dute berotegi efektuko gasen isurketaren erantzule nagusia bizilagunak mugitzen diren modua dela. Zehatzagoak izate aldera, garraibide kutsakorrek eta autoak erabiltzeagatik 53.000 tona CO2 isurtzen dira urtean Oiartzunen, kopuru osoaren %61. Emisioen %16 zerbitzuen sektoreak sortzen du; etxebizitzetako gas eta elektrizitate kontsumoak %9; industriak %6 eta lehen sektoreak %4.

2030. urtea, jomugan

Udalak egin duen planean energia burujabetzan aurrerapausoak eman eta klima larrialdiari aurre egiteko proposamenak jaso dituzte, eta, besteak beste, 2030erako berotegi efektuko gas isurketak %40 murriztea eta sortzen den hondakin kopurua %15 jaitea lortu nahi dute.

Herri jasangarria eta arduratsua lortzeko 64 ekintza adostu dituzte, eta lau ardatz estrategikotan banatu dituzte horiek: Oiartzungo sektore ezberdinetan energia eraginkortasuna bultzatu eta berriztagarrien erabilpena sustatzea; klima aldaketa arintzen laguntzen duen herria lortzea; klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egiten duen eta beharrezko konpromiso klimatikoa erakusten duen herri erresilientea erdiestea; eta energia trantsizioan udal eredugarria izatea.

Era berean, Elorsoro kiroldegian 150 kWp-ko instalazio fotovoltaikoa egiteko lanak bukatu ditu udalak, eta autokontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzeko erabiliko du kiroldegiko teilatuaren azalera. Elorsoro da herriko instalazio publikoen artean energia gehien kontsumitzen duen instalazioa; herriko argiteria eta eraikin publikoetako kontsumo osoaren %37. Trantsizio energetikorako planean urrats garrantzitsua da hori; izan ere, orain arte martxan jarri duen instalakuntza berriztagarri handiena da. 336 plaka jarri dituzte 741 metro koadroko eremu batean, eta, orain, kiroldegiko elektrizitatea tokian bertan eta modu garbian sortuko da. ■



Oiartzungo Udaleko ordezkariak Elorsoroko instalazio fotovoltaikoan. HITZA



Ikusi hemen Elorsoroko instalazio berriztagarriaren bideoa:
www.oiartzun.eus

Durangoko Azokan izango da Ttur-ttur

ZirHika taldeak Durangoko Azokako berrikuntzetako bat antolatu du: *Hikadromoa*. Izan ere, aurten, euskaltzaleen bilguneaz gain, azoka hikalarien bilgunea izatea ere nahi dute. Iniziatiba Bagera euskara elkarteak gidatuko du, eta laukoteka egingo dute jarduera. Hamabost minutuero aldatuko dituzte taldeak eta hainbat gai jorratuko dituzte, hikan, betiere.

ZirHika taldea Euskal Herriko hainbat tokitako hika eragileek osatzen dute; Ttur-tturrek, kasu, eta Badihardu euskara elkarteak koordinatzen du. Iaz egin zen Euskal Herriko I. Hika Topaketaren ondoren sortu dute egitasmo berri hau «elkar ezagutu, indarrak batu eta hita-noa bultzatzeko».

Abenduaren 7an izango da jarduera, Landako ikastetxean, 16:00etatik 17:45era, eta izena 943 12 17 75 edo 652 75 09 47 telefono zenbakietara deituta eman behar da.



Udazken Feministak ez du etenik

Hilaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean hasi zen Oiartzunen *Udazken feminista* ekitaldi sorta, eta abenduaren 10era arte luzatuko da egitaraua. Gaur, ostirala, Euskal Antzerkigintzaren Topaketa Feminista izango da Landetxan egun osoan zehar; bihar, aldiz, Greba Feminista Orokorren urteurren agerraldia egingo dute plazan, 12:30ean. Arratsaldean, 19:00etan, Zoitu antzezlanaren egingo dute Landetxan. Azkenik, abenduaren 10ean, *Mama* film laburraren emanaldia eta solasaldia egingo dituzte Landetxan.

Hamaika jarduera Euskararen Astean

Abenduaren 13ra bitartean ospatuko dute Oiartzunen Euskararen Astea. Euskara ardatz izango duen egitarau zabala prestatu dute Euskaraldia Batzordean udalak, Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea eta Abaraxka ludotekak dinamizatuta. Horien artean antolatutakoez gain, hainbat eragileren jarduerak ere txertatu dituzte egitarauan.

Atzo (osteguna) hasi zen programazioa, AEK-ko ikasleen artean egin zuten pintxo lehiaketarekin eta gaur Haurtzaro ikastolaren Euskararen Eguneko festa egingo dute. 18:00etan, *Oiartzun kantuan* izango da plazarik hasita, Oidultz Oiartzungo dultzaineroek antolatuta.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, festa eta aldarrikapena uzartuko dituzte euskararen aldeko herri argazkiarekin, 18:30ean plazan. Euskaraz bizi den eta hala bizitzen jarraitu nahi duen herria direla adieraziko dute oiartzuarrek.

HITZA
OARSO BIDASOKO
HITZAREN
OTARREA!

LEZOKOAK
Laurak Bat
Itturri
e

Errenkoalde, Lezokoak, Laurak Bat eta Itturriko komertzioetan kontsumitzeko **1.000 euro saritan!**

Sariak:
400 euroko bonua (HITZAKideentzako saria)
200 euroko bonua (HITZAKideentzako saria)
100 euroko 4 bonu (parte hartzaile guztien artean)

labur.eus/otarrea

Parte hartzeko epea: abenduaren 17ra arte

«Euskara euren integrazioan oztupo bat ez izatea da asmoa, gustura sentitzea»

ITXASO MUJIKA

HARRERA SAIOETAKO IRAKASLEA

«Adaptaziorako funtsezkoak dira saioak; gizarteratzen lagundu behar diegu»

CARLA CASTRO

HARRERA SAIOETAKO IRAKASLEA

Irakasleek, ikastetxeek bezalaxe, bada-kite ez dela erronka erraza, baina saioek onurak besterik ez dakartzatela argi dute. Nora Velez Karmengo Ama ikastetxeko irakasle eta tutoreak aipatu du aurten zazpi ikasle ari direla harrera saioetan Castrokekin, eta aitortu du irakaslearekin «oso ongi konektatu» dutela denek: «Bultzada hau edukitzea oso positiboa da. Trintxerpekoa bezalako testuinguru batean, euskararen erabilera oso baxua den testuinguruan, proiektu honek asko laguntzen du».

Adinari erreparatu dio Velezek, eta aitortu du aldaketa handia sumatzen dela. «Batzuk etapa bukaeran iristen zaizkigu, hau da, DBH bukaeran, eta ez dakite euskararik. Eta egun batetik bestera D eredura egiten dute salto, horrek dakarren guztiarekin. Exijentzia maila altua da urte horietan, beraz, zerbitzu hau erabat funtsezkoa da», erantsi du.

Pasaia-Lezo Lizeoko hizkuntza normalizazioko arduradun Olatz Salaberriak etorri berri diren ikasleen bidea eta egokitzapena «ahalik eta samurrena» izateko harrera saioak ezinbesteko direla aitortu du: «Haien lekuan jarri behar gara eta ulertu, dena oso arrotza egiten baitzaie». Ikastolako sei ikasle ari dira harrera saioetan aurten.

Saio hauetan parte hartzen ari diren ikasleen egoera ez dela berbera nabarmendu nahi izan du Salaberriak, aniztasuna «oso zabala» dela adierazi du: «Ematen du ikasle hauek multzo homogeen bat osatzen dutela, eta ez da hala. Haien artean hizkuntza ezberdinak dituzte. Batzuek, Europatik edo Afrikatik etorritakoek, ez dakite gaztelania ere, eta hor ikusi behar dute euskararen beharra. Euskara izan dadila ikasle horiek guztiak elkartuko dituen».

Pasaia-Lezo Lizeoko harrera saioetako baten irudia da behekoa. HITZA

«Haien lekuan jarri behar gara eta ulertu, dena oso arrotza egiten baitzaie»

OLATZ SALABERRIA

PASAI A LEZO LIZEOKO IRAKASLEA

«Bultzada hau edukitzea oso positiboa iruditzen zaigu, asko laguntzen dute saioek»

NORA VELEZ

KARMENGO AMAKO IRAKASLEA

Salaberriak pisu akademikoan ere jarri nahi izan du fokua, eta harrera saioen beharra nabarmendu du: «Ez da berdina 7 urterekin iristea edo 14rekin. Maila bat eman behar dute. Ikasle bat DBH3ra iritsi, eta bi urtean titulatu behar da. Adaptazioak azkarra izan behar du derrigor, eta horrelako proiektuak ezinbesteko dira bide horretan. Etorri berriek esfortzu hori egiten dutela ikusten badute, erreferente ere izan daitezke Pasaian jaio diren haurrentzako». ■





PLAZA ETA KALEETAN, SALAKETA ETA AITORTZA ERA ASKOTARA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izan zen astelehenekoa. Herri guztietan egin zituzten emakumeen kontrako bortizkeria salatzen, eta askotariko forma duen bortxa estruktural hori jasan duten emakumeei aitortza egiteko jarduera eta ekitaldiak. Ondoko irudiak horren adibide grafiko dira.



EUSKARAREN EGUNEKO I. KOMIKI SARIKETA

Gaia:

EUSKARAZ NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS

Nola irudikatuko zenuke gure nahia komiki batean?

EUSKARAK
du HITZA

HITZAk du
EUSKARA

Komikia sortu
eta 6 sariren
zozketan parte
hartuko duzu!

1

Komiki sorta
Artxipelagoa,
Amaiur 1522:
Inperioak berriz
erasotzen du eta
Mugako dragoiak:
Azote



2

Komiki sorta
Linbo planeta,
Dinosaurioak 2
eta Idefix eta
menderakitzak:
Idefix eta druida



3

Xabiroi
aldizkariko
urtebeteko
harpidetza +
Botere handi
batek komikia



4

Xabiroi
aldizkariko
urtebeteko
harpidetza

5

Marrazteko
materiala

6


Marrazteko
materiala

6 URTETIK 12 URTERA BITARTE.
EPEA: AZAROAK 13TIK
ABENDUAREN 2RA.
ABENDUAREN 3AN JAKINARAZIKO
DITUGU IRABAZLEAK.

Dinarriak
hemen



**HITZ
GEZIDUNAK**

	◆ Irudian	▼	Ez hotzak, ez beroak	▼	Ilargiko	▼	Leku, toki	▼	Nafarroako udalerria	▼	
	Irabazlea, garailea		Buka		Gabezia		501		Lera		
	▶		▼		▼		▼		▼		
	Hautzainak	▶									
	Labearen barrunbea										
20 errealeko diru	▼	EHko mendialdea	▶				Modua	▶			
Edateko gogoa		Ezohikoa					Eguzki				
▶		▼				Germanioa	▶	▼	Nori atzizkia	▶	
						Arazo ez- tabaidatuak			Uko		
Hoben	▶			Ergelak	▶	▼					
Ereinotz				Erabat nekatu							
▶				▼	Utl	▶				Urania	▶
					Tona, labur-labur					Errusiako enperadore	
Lagunartea, konpainia	▶				▼			Kanpo, landa	▶	▼	Iratzea, garoa
Lekaimea								Atomo kargadun			
▶						Heldu	▶	▼			▼
						Azkeneko letra					
Hegazti zangaluzea	▶					▼		Lotsagabe	▶		
Begirada								Lehenengo letra			
▶											
				Bokal errepikatua	▶						
						Koaderno	▶	▼			

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik **688 77 07 52** zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), **denborapasakobh @hitza.eus** helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo **OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora** (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. **Epe muga:** datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

SUDOKU

1-9 zenbakiak idatziz, bete itzazu 9x9 laukian hutsik dauden gelaxkak, kontuan zanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen ilara eta zutabe berean, ez eta dagokion 3x3 laukian ere.

			5				2	
		4			3			
		2		4	7	5	9	
		7	3					1
5		8	4		6	9		7
1					5	6		
	9	1	8	5		7		
			1			8		
	8				9			

**AZAROAREN 22ko
ASTEKARIKO
DENBORAPASEN
ERANTZUNAK**

O	R	D	E	R	I	T	Z
E	R	R	O	I	T	Z	
Z	E	O	R	R	I		
Z	O	R	R	I			
Z	O	R	I				
Z	O	R					
Z	A	R	O				
A	R	A	Z	O			
A	R	O	T	Z	A		
O	R	K	A	T	Z	A	
A	R	R	O	T	Z	A	K

GOITIBEHERA

**HITZ
GEZIDUNAK**

■	■	■	■	R	■	O	■	S	■	I	■	B
■	■	■	G	A	L	I	Z	I	A	R	R	A
■	■	■	■	M	I	H	I	■	U	■	■	R
■	Z	■	Z	O	Z	A	B	A	R	R	A	K
S	A	K	O	N	E	R	A	■	K	A	K	A
■	B	A	R	■	O	T	■	A	I	R	E	Z
K	A	L	A	B	A	Z	I	N	A	■	R	I
■	L	E	M	A	■	U	R	A	■	E	R	O
B	E	T	E	■	E	N	A	R	A	■	A	■
■	G	A	N	O	R	A	■	I	D	I	K	I
L	I	R	A	T	E	K	■	I	A	■	■	I



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Orereta)



HITZAKIDEen
TXOKOA

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€



DENBORAPASAK

ASTEKO SARIA LOHIART ZERAMIKA SORTA

Eskuz egindako ale bakarrak

[_lohiart_](#)



AURREKO ASTEKO SARIDUNA AINTZANE ZUFIRIA ETXEBERRIA

LABORE TXINGUDIREN
PRODUKTUEN OTARREA
laboretxingudi.eus



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA



MARI OIARTZABAL ETXEBESTE

DURANGOKO AZOKA

2024KO NOBEDADEEN SORTA.
59. Durangoko Azoka. DA!

Azokan bertan, Informazio
gunean, jaso behar da abenduaren
6tik 8ra bitartean.

durangokoazoka.eus



IDOIA GENUA ALZURI

LA PERLA

Bi lagunentzako forman jar-
tzeko talaso zirkuitua

HITZA jarriko da harremanetan
saridunarekin.

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
Tel.: 943 45 88 56
www.la-perla.net



SORKUNDE MITXELENA IDIAKEZ ALBERDANIA, S.L.

BBK KARPIN ABENTURA

Lagun birentzako bina sarrera
Aurrez idatzi infokarpin@gmail.com
postara bisita eguna eta saridunaren
izen-abizenak jarritz eta gonbidapena
jasoko duzu. Hiru hilabeteko epea
saria erabiltzeko.

KARRANTZA
Tel.: 626 622 245
infokarpin@gmail.com

Harpidedun txartela aurkeztu behar da.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitetz HITZAKIDE!

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.



Hondarribiko
Udala

www.hondarribia.eus

**Hondarribian
euskaraz
bizi gara!**